

ONGINTZA PATRONATUKO KALE HEZITZAILEAK

“Gaztetxoek denbora libreko ekintzak eskatzen dituzte”

Kale hezitzaileek, atzotik urriaren 20a bitartean zazpi ekitaldi antolatu dituzte. Gaur, ‘skate’ eta patinete txapelketa da Floridan, Elizatxo ikastolako futbol zelaian.



Atzo grafiak egiten aritu ziren gazteak. 30 mutiko pintatzen eta 20 neska goitik begira.

GAZTETXOEK aisialdirako aukera motza ikusten dute herrian. Horixe da Ongitza Patronatuko *Kale hezitzaileek* ikastetxe ikastetxe pasatako inkestaren ondorioa. “Hala ere, gu hasi gara Hernanin zer aukera dagoen aztertzen, eta eskaintza badagoela ikusi dugu” esan digu Maider Sierrak, Kale hezitzaileetako batek.

“ESKAINNTZA FALTA”

12-16 urte bitarteko gaztetxo askok, ordea, ez omen du aisialdirako eskaintza hori badagoenik ikusten. Gainera, “egia da batzuen zaletasunak betetzeko gauzak falta direla”. Hala, gaztetxoek eskaerak jasotako eta haien gustuak asetzeko ekitaldiak antolatu dituzte.



Maider Sierra
Kale hezitzailea

“Gure asmoa gaztetxoek nahiak asetzea da, baina, beraiek eskatzen dizkiguten gauzetan lan eginez. Animatu ditezela!”

HERRIAN BERTAN

Ez dira hauek *Kale hezitzaileek* antolatu dituzten lehen ekitaldiak. Uztailean ere irtenaldiak egin zituzten Donostiara, Bidarraira, Zizurkilera... Orain, dena Hernanin bertan egindo dute: Pana parkean, Goiz Eguzkin... Ez dira, gainera, Hernaniko gaztetxoak bakarrik izango; inguruko herrietatik ere etortzekoak dira.

FUTBITO TXAPELKETA

Gaur 17:00etan, *skate* eta patinete txapelketa jokatu da, eta etzi, berriz, *futbito* txapelketa jokatu da 09:30etan hasita. Izena, ikastetxean bertan eman. Datorren astean, perkusio eta malabarak, golfa, esku pelota... eta festa. □

Agustin Mazizior ereñotzuarra itota hil da Hondarrabiko arroketan

Sos Deiak zerbitzutik esan zaigunez, itsaso harroa zebilen eta litekeena da olatu kolpe batek bota izana.

Albiste arratsaldeko lehen orduan zabaldu zen atzo. Agustin Mazizior, 35 urteko ereñotzuarra Hondarribiako Los Frailes hondartzako arroketan hilda aurkitu zuten. Gauza garbirik ez badago ere, Agustin, buzeatzen zebilela, olatu kolperen batek jo eta arroketan harrapa-

tuta ito izango da. Gorpua Gurutze Gorriak eta Ertzaintzaren Brigada mugikorrek libratu behar izan zuten. Lagunen batekin zegoen eta harek eman zuten parte.

Agustin Maziziorrek, azken bolada honetan, buzeatzen ibiltzen izan behar zuten. □

Fraile eta Apezetxea EH-ko zinegotziek Madrilen deklaratu dute gaur

Ekain Ruizen heriotz ondoko plenoak hartutako erabakiengatik deitu diete fiskalak.

Mertxe Etxeberría alkatea bera izan da auzi honengatik Auzientzia Nazionalean deklaratu behar izan duen lehena. Gaur 11:00etan, berriz, Manuel Fraile eta Mila Apezetxea zinegotziak dira fiskalaren aurrean deklaratzekoak.

Boluetako leherketa hartan hildakoetako bat Ekain Ruiz

hernaniarra zela konfirmatu zenean, udalak pleno berezia egin zuen; eta, besteak beste, Ekainek erraustak udaletxean jartzea eta herriko *Seme Kuttun* izendatzea erabaki. Fiskalak, orduko erabakietan delitu arrastorik ote dagoen ikertzeko, hartuko die deklarazioa bi zinegotziei. □

■ ERRUGBIA

Hernanik asteburuan hasiko du liga

Iruñaren kontra jokatu du partidua Landaren.

HERNANI CR-k datorren igandean ekingo dio liga berriari. Aurten gainera, Donibane Lohitzuneko errugbi taldearekin sinatu dute hitzarmena, eta aurreboraldia elkar lanean antolatu dute. Hala jarraitzekotan dira.

SENDOTZEA HELBURU Jokalari gazteak ditu Hernaniko taldeak. Orain, Lehenengo B-mailan dago. Denboraldi hasierako prentsaurrekoan bota zuten, hiru lau urte barrurako pentsatu dute mailaz igotzeko saltoa. □

**Hernaniko
Kronika**

**Zure
publizitatea
hemen
943-330899**

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI

Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua ZALAKAIN - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - ZESTAU III
- ⇒ 2. partidua EZKURRA - ZUBELDIA / ZEBERIO II - EIZAGIRRE
- ⇒ 3. partidua MATXIN - LEKUNBERRI / URRETA I - AIZPURU
- ⇒ 4. partidua IÑIGO - ZANDIO / KALONGE - MENDIZABAL

NEGUTEGI TERAPEUTIKOAK

Ospitalea eta gizartearen arteko zubia

Arazo psikikoa duen jendea gizarteratzeko bitarteko bat dira negutegiak. Gipuzkoa osoan, modu honetako udal zerbitzu bakarra da Portuan dagoen hau.

ORAIN hamaika urte sortu ziren Negutegi Terapeutikoak. Aurrera elkarrekin bultzatuta, Antiguako osasun zentroak eta Ongintza patronatuak lagunduta atera zuten aurrera *eskizofrenia paranoidea* duen jendearentzako zerbitzu hau.

BIZITZARA OHITZEKO

Gaixoak krisi garaian ospitalean sartu ohi dira, baretzean ostera ere lehengo tokira bueltatzeko. Lehen krisia eragin dioten arrazoi eta gauza guztiekin topo egiten dute, ordea, ospitaletik irtetzean. Zenbaitek halakorik jasan ezin duenez, ospitaletik sartu eta atera ibil-tzeko arriskua dago. Aurre egiteko bizitza normalean aurkituko duten antzeko esperientzia dute negutegietan: goizetik eguerdira arteko lana (barazkiak eta Hernaniko



Hernaniko jardinetako lore guztiak negutegi honetan hazten dira.

jardinetako lore guztiak produzitzen dituzte), noizbehinka irteerak (zinemaldira...), eztabaidak, meriendak... hamaika urte hauetan 45en bat pasa dira bertatik, eta 13 inguruk

lortu du kanpoan lana. Hernaniko jendearentzat, udalak subentzionatzen du %100ean; kanpokoak badira, berriz, beraien udalak edo eurek. □

JASOTA BEZALA

YOGI, NUN DA BUBU?


Abioiak ez zion lurrari muxurik eman. *No problem!*

San Francisco, ekialdeko aurpegiak eta gaztelera nagusi. Amerika handiaren lehen islada txikitik ihesi, Yosemite parke nazionalera jo genuen. Eskalatzailen pareta mitikoenak (El Capitan, Half Dome...), zapo-hankak jantzita, fin-fin igo genituen; zeinek esan...! Beherakoan, gauez kanpindenda urratu zigun hartzairen hatzaparren ihesi, Mono lakura

heldu ginen lotara. Monotik, Buffalo bidean barrena, Renora, zoologikotik atera ezinik eta Renotik Boisera, ETBko dokumental honezkero raiatuetak euskaldunak benetan existitzen ote diren egiaztatzer. Ba, bai, existitzen dira. Astebete pasatxoan ezdarrian trabatuta geneuzkan hitz guztiak batera botatzeko aprobeztatu genituen bertako euskal-belarri eta iritxi berri ziren Takolo, Pirritx eta Porrotxenak. Salt Lake, basamortu ga-

tzatuan zilipurdi batzuk egin ditugu geroztik (xeoxe kutsatuko zaigun esperantzan...) eta Bryce kañoiko harri gorri-gorrietatik, Koloradoko koloretan betetako kañoira heldu berri gara. Forma imagina ezinetako harri tarteetan Koiotea ere ikusi dugu. *Korrekaminos*, oraindik ez...

Eskuminak eta muxuak postalik iritxiko ez zaizuen guztiak. **Susi, Marijo, Maialen eta "Pangea"ko lagunak.**



Susi, Maialen eta Marijo depresiotik ateratzen, han Yosemite.

HITZ BITAN



Igerilekuan jende asko apuntatu da aurtan.

✓ KIROLDEGIKO ORDUTEGIAK

Ordutegi berriak ditu Kiroldegiak astelehenaz gero.

Lanegunetan: Gimnasioa eta pistak 07:00-21:30; Igerilekua 07:00-20:15; eta pilotalekua 07:00-21:45.

Larunbatetan: Kiroldegi osoa 09:00-12:30 eta 16:00-19:30.

Igande eta jai egunetan: kiroldegi osoa 09:00-12:30.

✓ HAIKA

Urriaren 13 eta 14an Miarritzen Europako estatu ordezkariek elkartuko dira. Haika gazte erakundearen iritziz, Euskal Herriaren zapalkuntza babesten dute estatu hauek eta hori salatzeak akanpada antolatu dute Miarritzen bertan. Haren ingurukoak azaltzeko, gaur, 19:00etan, Gazte Gunean bilera izango dute. Larunbaterako, bestalde, *burrunda* antolatu dute Europako estatu ordezkarien jarreraren aurka. 00:00etan plaza-tik irtengo dira.

✓ ODOLA

Joan den asteartea zen odola emateko eguna. Guztira 79 pertsonak eman zuten (aurreko hilabetean baino 6 gehiagok), eta hauetatik 3 emale berriak ziren.

✓ AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

Gaur eztabaidak segiko du udaletxean. 19:00etan adinekoek, 20:00etan gazteek eta 21:00etan Merkatariek dute aurrekontuen inguruko bileretara azaltzeko aukera. Aste honetako bilerak zerbitzuen ingurukoak dira.

✓ MUSIKA

Arizmendi jatetxeak afari musikatuak egingo ditu ostegunero. 21:00etan afaria eta 22:00etan hasiko da kontzertua. Gaur Gabriel Gulian Uruguayarraren txanda izango da.

✓ ZAHARREN EGOITZA

Diapositiba emanaldia dute gaur arratsaldean. Sandiurriko zahar egoitzan aldika-aldika ekitaldiak antolatzen dituzte. Batzuetan ekitaldi irekiak eta bestetan bertakoentzat bakarrik. Gaur, diapositiba emanaldia dute arratsaldeko bostak eta erdietan. Gaurkoa bertakoentzat bakarrik izango da. □

AGENDA	❖ ERAKUSKETAK <i>Hernaniko Udalaletxea:</i> <i>mende bat bizirik</i> Udaletxean bertan, 12:00-14:00	❖ KONTZERTUAK <i>Gabriel Gulian Uru-</i> <i>guayarra.</i> Arizmendi jatetxean 22:00etan.
---------------	--	---

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udalzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 557750

⊕ FARMAZIAK

► Egunez: Chucla
Kardaberaz, 48
☎ 943 551793
► Gauez: Rodriguez
Lasarte. Nagusia, 42
☎ 943 361774